



BELDUR BARIK! PROGRAMA

ABIAN DA 2012KO EDIZIOA, GAZTEENTZAKO IKUS-ENTZUNEZKO LEHIAKETAREKIN

- Beldur Barik ekimenaren xedea da gazteen artean balio positiboak sustatzea: zehazki, haien arteko harremanetan errespetua, berdintasuna eta indarkeria sexistaren prebentzioa sustatzea.
- EUDELek bultzatuta sortu zen, eta euskal erakunde guztien babesa dauka; programaren baitan, askotariko jarduerak gauzatzen dira euskal udaletan, ikastetxeetan eta unibertsitateetan.
- Erakunde, herritar eta gizarte-eragileek osaturiko partaidetza sare zabal bat sortzea da asmoa, gazteen artean indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko.
- Beldur Barik lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei begira antolatutako jarduera da, eta hauxe du helburu: programak aldarrikatzen dituen jarrerak eta mezuak ikus-entzunezko formatuan erakusten dituzten adierazpen artistikoak saritzea.

Bilbon, 2012ko ekainak 11. Gaur, ekainak 11, astelehena, abiatuko da 2012ko Beldur Barik! programa, **HAMAIKA JARRERA, HAMAIKA AUKERA!** izenburupean. Lehenengo jarduera ikus-entzunezko lehiaketa izango da, gazteen arteko harremanetan balio positiboak sustatzea xede duena; zehazki, errespetua, berdintasuna eta indarkeria sexistaren prebentzioa sustatzea.

Aurten, irudi berri batekin datorkigu Beldur Barik: **komikiaren estetikaren** ukitua du irudi horrek, eta, irudi errealaren eta marrazkiaren bidez, eguneroko bizitzako hainbat egoeratan “heroi” modura ageri diren neska gazteak erakusten ditu.

Beldur Barik! urtez urteko programa gazteen artean indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko xedez sortu zen, 2009an, Eudelek bultzatuta eta berdintasunaren aldeko euskal udalen Berdinsarea sarearen ekimenez. Gaur egun, euskal erakunde guztien babesa dauka programak: Emakunde, Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.



Ekimenarekin lankidetzan dihardute, gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta EITBk.

Programaren baitan, sentsibilizazio eta zabalkunderako ekimenak bideratzen dira euskal ikastetxeetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU); era berean, aipatzekoa da Beldur Barik! Topaketa ere, gazteentzako prestakuntza tailerrak, eztabaidak eta jarduera ludikoak biltzen dituena.

Beldur Barik programa 2012. urte osoan garatuko da, honako 3 ildo hauen inguruan:

- 1. Adierazpen artistikoen ikus-entzunezko lehiaketa.**
- 2. Tokian tokiko ekimenak, udaletan, eta jarduera globalak,** hiru herrialdeetan, komikia ardatz hartuta.
- 3. Azaroaren 25eko** kanpaina **(Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna)** eta programaren itxiera, **Beldur Barik 2012 Topaketan**, azaroaren 24an (larunbata).

www.beldurbarik.org webgunea eta **gizarte-sareak** (*Facebook, Twitter* eta *Tuenti*) izango dira, aurtan, programaren komunikazio bide nagusiak, gazteen artean duten arrakasta dela eta. Hain zuzen ere, honako eduki hauek landuko dira, besteak beste, bitarteko horien bidez:

- **Intereseko gai bati buruzko** atala, hilero, eztabaida sustatzeko.
- **Elkarrizketak**, lehiaketaren aurreko urteetako irabazleekin.
- **Erreportajeak**, berdintasunari edo nesken jabekuntzari loturik gazteek gauzatutako beste ekimen batzuei buruz.

Beldur Barik III. Lehiaketa

Beldur Barik! lehiaketa gazteei begira antolatzen da (12 eta 26 urte bitarteko gazteei begira). Hirugarren urtea du aurtengoa, eta aurreko deialdian **250 lanetik gora aurkeztu ziren**; bistan da, beraz, arrakasta handia duela eta urtez urte sendotzen ari dela.

>Lanen formatua: ikus-entzunezkoa (bideoak, argazkiak, musika...), eta edozein diziiplina artistiko erakusten duena (dantza, pintura, *performancea*, antzerkia...). Banakoek egindako lanak nahiz talde, elkarte, ikastetxe edo ikasgeletan egindakoak aurkeztu ahal izango dira.



>Sailak: lehiaketan, bi sail bereizi dira: **12 eta 17 urte bitarteko gazteen saila, eta 18 eta 26 urte bitartekoa.**

>Hiru sari: sail bakoitzeko bi sari banatuko dira, **1.000 eurokoak**. Ikus-entzunezkoen arloan adituak diren kideek eta erakundeen ordezkariak osatutako epaimahai batek emango du sail horien gaineko epai ofiziala (azaroaren 16tik 19ra bitartean). **Eta beste sari bat ere izango da, 300 eurokoa**, Beldur Barik programaren YouTubeko kanalaren bidez egingo den herri-bozketa bidez (azaroaren 14ra bitartean) aukeratutako lanarentzat.

Saridunen izenak ezagutzera emateko, azaroaren 24a aukeratu da; hain zuzen ere, egun horretan egingo da **Beldur Barik Topaketa**, urtero antolatu ohi den jaialdia, eztabaidak, prestakuntza tailerrak eta jarduera ludikoak biltzen dituen.

>Parte hartzeko epea: lanak aurkezteko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Proposamenak posta elektronikoz igorri behar dira, honako helbide honetara: jarrera@beldurbarik.org

Informazio gehiago: www.beldurbarik.org